

## 2014-15EKO EPE: HAUTAKETA-PROZESUAN IZENA EMATEKO ARGIBIDEAK

### Ebazpenak eta deitutako kategoriak argitaratu dira

2015eko ekainaren 3ko EHAA 1135/2015 Ebazpena argitaratu da, maiatzaren 28koa, Osakidetzako zuzendari nagusiarena. **Oinarri orokorrak** daude jasota ebazpen horretan, 2014. eta 2015. urteetarako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituztenak.

2015eko ekainaren 3ko EHAA 1135/2015 ondorengo **kategoria** hauen **deialdia eta oinarri espezifikoak** onartzen dituzten ebazpenak argitaratu dira, Osakidetzako zuzendari nagusiarenak:

**FE Familiako medikua LMAT**  
**FE Pediatriako medikua LMAT**  
**Erizaina**  
**Fisioterapeuta**  
**Emagina**  
**Laborategiko teknikari espezialista**  
**Erizaintzako laguntzailea**  
**Administrari laguntzailea**  
**Zeladorea**

### Izena emateko epea

Kategoria hauetako hautaketa-prozesuan izena eman daiteke **2015eko ekainaren 4ko 9:00etatik uztailaren 3ko 14:00etara arte**.

### Eskabidea egiteko modua

Izena emateko **eskabidea elektronikoki** egin behar da, webaren bitartez: <http://www.osakidetza.euskadi.eus>; hona hemen ibilbidea: Profesionala naiz/Giza Baliabideak/Hautaketa eta Horniketa/2014-15eko EPE/Eskabidea.

Hautaketa-prozesuan **izena emateko, eskabide elektronikoa bete eta izena emateko eskubideak ere ordaindu** behar dira. Biak ala biak izena emateko epearen barne egin beharrekoak dira. Izena emateko epe horretan ez da inolako agiririk aurkeztu behar.

Hona hemen hautaketa-prozesuan izena elektronikoki emateko erabili beharko duzun **pasahitza**:

- Osakidetzako informazio sistemetan sartzeko erabiltzen duzun bera (Enpleguaren ataria, Osabide edo Norbide).
- Osakidetzako informazio sistemarako sarbidea eduki ezean, 2014ko Kontratazio-zerrendetan izena emateko erabili duzuna.

- 2014ko Kontratazio-zerrendetan izena eman ez baduzu, 2011ko EPEan izena emateko erabili zenuena.

- 2011ko EPEan izena eman ez bazenuen baina Osakidetzan lan egin baduzu eta Osakidetzan curriculum baldin badaukazu: pasahitza zure curriculumera sartzeko bera izango da.

- Aurreko egoeretan baldin ez bazaude: aplikazioan sartzan zaren lehen aldian zuk zeuk jartzen duzuna izango da erabili beharreko pasahitza. Pasahitz hori gogoratu beharko duzu etorkizunean kontsultak egin eta eskabidea aldatu ahal izateko. Kasu horretan, adierazitako pasahitzak derrigorrezko baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) 8 eta 15 karaktere artekoa izatea, eta
- b) gutxienez hauekin osatuta egotea: minuskula bat, maiuskula bat, zenbaki bat eta ondoko karaktere berezi hauetako bat: !()=@\_+,-%\$#&/;:<>?

#### **Pasahitza gogoratzen ez baduzu hau egin dezakezu berreskuratzeko:**

- 2014ko EPERako eskabidea egingo baduzu:

a) Osakidetza informazio sistematan sartzeko pasahitza berreskuratzeko, 945006350 telefonora dei dezakezu.

b) Gainerako pasahitzetarako: eskabide-orrian bertan pasahitza bidaltzea eska dezakezu, aplikazioak sarbide-kontrolan pasahitza eskatzen dizunean. Kasu horretan, dena delako prozeduran (2014ko Kontratazio-zerrendak, 2011ko EPE, etab.) eskabidea egitean eman zenuen helbide elektronikora bidaliko zaizu pasahitza.

- pasahitza horrela berreskuratzerik ez baduzu, edo bidaltzen dizuten horrekin ezin baduzu eskabidea egin edo bertan sartu, deitu 945006150 telefonora eta bertatik esango dizute pasahitza nola eskatu eta lortu; bestela, idatzi [epe-ope@osakidetza.eus](mailto:epe-ope@osakidetza.eus) helbidera eta NANaren kopia eskaneatua bidali.

#### **Informazioa eta eskabideak formalizatzea**

##### Internet

Behin <http://www.osakidetza.euskadi.eus> webean eskabidea eginda, **izena emateko eskabidea aplikazio informatikoaren bidez igortzen da; beraz, ez da aurkeztu behar**. Izena emateko eskubideak ordaindu izanaren agiria ere ez dago aurkeztu beharrik.

**Hain zuzen ere, modalitate hori erabiltzea gomendatzen dugu**, bai eskabidea betetzeko, bai tasa ordaintzeko (banku elektronikoaren bezero izan ezker). Eskabidea etxetik edo beste edozein ordenagailutik egin daiteke, Interneteko konexioa edukiz gero, edo bestela, KZgune sareko edozein zentrotan. **Zain egon behar izatea eta joan eta etorri ibiltzea saihestuko duzu.**

### Aurrez aurreko arreta

Aurrez aurre arreta egitea behar baduzu, Osakidetzak honako aukera hauek ematen dizkizu:

**Osakidetza langilea bazara**, zure Zerbitzu Erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzara jo dezakezu.

**Osakidetzan lan egiten ari ez direnak**, aldiz, ondoko tokietako edozeinetara joan daitezke aurrez aurreko arreta jasotzeko:

Araba:

- Osakidetza – Hautaketa eta Horniketa Zerbitzua (Araba k., 45, Vitoria-Gasteiz)
- Lezako Ospitalea. (Logroño-Vitoria errepidea, 59. km. Guardia)

Bizkaia:

- Bilbao-Basurtu ESI (Montevideo etorb., 18, Bilbo; Kale Nagusia, 62-2., Bilbo)
- Ezkerraldea Enkarterri Gurutzeta ESI (Gurutzetako plaza z.g., Gurutzeta-Barakaldo)
- Barrualde-Galdakao ESI (Labeaga auzoa z.g., Galdakao)

Gipuzkoa:

- Donostialdea ESI (Begiristain dk. pasealekua, z.g., Donostia- San Sebastián)
- Bidasoako ESI (Zubieta finka, Mendelu auzoa, z.g., Hondarribia)
- Debabarreneko ESI (Mendarozabal auz., z.g., Mendaro)
- Debagoieneko ESI (Nafarroa etorbidea, 16. Arrasate-Mondragón)
- Goierri-Urola Garaiko ESI (Argixao auz., z.g., Zumarraga)

### **Aurrez aurreko arreta emateko orduak:**

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 14:00etara

### **Argibideak**

Argibide gehiago behar dituzten interesdunek, deialdiaren inguruan zein aurrez aurreko arreta ematen duten bulegoen edo hautaketa-prozesuaren inguruan, helbide honetara jo dezakete, <http://www.osakidetza.euskadi.eus> (ibilbidea: Profesionala naiz/Giza Baliabideak/Hautaketa eta Horniketa/2014-2015eko EPE), edo bestela, 945006150 telefonora deitu.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainaren 4an.